

Haurren mugikorren erabileraz gogoeta egiteko, bi saio

‘Zugatik Gugatik’ ekimena sortu dute Ibarako hainbat gurasok, mugikorren erabileraz kezkatuta; ikasleei eta gurasoei zuzendutako saioa egingo dute hilaren 23an // 6



Ibarako guraso taldeko kideetako batzuk. L. CARRASCO

Urtea amaitu aurretik lizitatuko dituzte geltokiko lanak

Tolosako erdiguneko geltokia berritzeko eta irisgarritasuna hobetzeko proiektura giza baliabide gehiago bideratuko dituela esan du Adif-ek // 2

Urrezko bi domina eskuratu ditu Judo Klub Tolosak

Unai Saralegik eta Unai Regillagak senior mailan eta Joseba Regillagak eta Joseba Etxarrik junior mailan lortu dute garaipena // 7



TOLOSA

UKRAINAKO ILUNTASUNERA

Bika Adamovych ukrainarraren bizitza ardatz hartuta, ‘Bikaren itzulera: Ivankivera bidaia, errusiar okupazioaren ondoren’ erakusketa jarri du ikusgai Ura Iturralde argazkilari tolosarrak, Aranburu jauregian // 4

IRATISAZAR



Tolosaldea
Lanbide Heziketa Institutua

@tolosaldea
@TolosaldeaLH
@TolosaldeaLH
@tolosaldealhii

ate irekiak

Martxoak
27,28 eta 29

Apirilak
24,25 eta 26

PRESENTZIALKI
Derrigorrezkoa hitzordua hartzea:
www.tolosaldealh.eus



ERDI MAILA
Instalazio Elektriko eta Automatikoak
Mekanizazioa
Soldadura eta Galdaragintza
Merkataritza Jarduerak
Mikroinformatika Sistemak eta Sareak
Natur Ingurunean Gorputz eta Kirol Ekintzen Gidaritza

GOI MAILA
Eraikuntza Metalikoak
Automatizazioa eta Robotika Industrialak
Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa
Administrazioa eta Finantzak
Instalazio Termiko eta Fluidodunen Mantentzea
Sareko Informatika-Sistemen Administrazioa
Mekatronika Industrialak
Egokitzapen Fisikoa

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Fp

Hasi dituzte Arratzaingo aparkalekuko eraberritze lanak

Katea-Etxeko lorategia ere berritzen ari dira, eta elementu naturalekin osatutako eremu berria sortuko dute bertan

Erredakzioa Amasa-Villabona

Arratzain futbol zelaiaren aldameneko aparkalekuaren behin betiko eraberritze lanak hasi dituzte jada. 1.800 metro koadroko eremuaren bueltan zintarri edo bordillo bat jarriko dute, lurzoru asfaltatuko dute eta autoek aparkatzeko marrak margotuko dituzte. Horrez gain, sei kaleargi jartzeko oinarriak ere jarriko dituzte, eremuaren argiztapena egiteko.

Bestalde, Katea-Etxea Gaztelekuko eraberritze lanen barruan, eraikinaren aurrealdean dagoen lorategian elementu naturalekin osatutako eremu berria sortuko dutela esan du udalak. Obra horri esker Villabonako herriguneko espazio publiko berria izango duela esan du udalak. Eremura sartzeko egurrezko harmaila bat jarriko dute Kale Nagusira ematen duen aldean, berdegunean piknik mahai bat jarriko dute, Kale Berrira ematen duen aldeko itxitura eraberrituko dute, eserlekuak edo bankuak jarriko dituzte, eta landare igokariak landatuko dituzte, besteak beste.

Adif-ek dio giza baliabide gehiago bideratuko dituela geltokia berritzeko

Adif-eko ordezkariak Tolosako udal gobernuarekin bildu dira eta esan dute urtea amaitu baino lehen lizitatu eta esleitu dituztela guneko irisgarritasuna hobetzeko lanak

Erredakzioa Tolosa

Adif Espainiako Trenbide Azpiegituren Administrazioaileak 2021eko irailean aurkeztu zuen jendaurrean Tolosako erdiguneko geltokiko irisgarritasuna hobetzeko proiektua, baina «barne arazoak» medioa, oraindik orain ez du proiektua behin betiko onartu. Hori dela eta, Tolosako Udalak esan du udal gobernuak pasa den astean bildu zela Adif-eko arduradunekin eta proiektua egin duen ingeniari taldearekin, eta bertan hainbat konpromiso hartu zituztela. Udalak azalpenak eskatu zituzkien; «proiektua zein puntutan dagoen ezagutzeko eta proiektua sustatu dezaten exijitzeko, bistakoa delako Tolosako erdiguneko geltokian irisgarritasuna hobetu eta bermatzeko beharra badagoela», esan du Olatz Peon Ormazabal alkateak.

Horri erantzunez, Adif-eko ordezkariak esan zuten barne antolaketarekin zituzten arazoak bideratu dituztela jada, barne antolaketa berria ezarri dutelako, eta ondorioz, orain proiektuak onartzeko prozesuak zorroztzagoak eta luzeagoak direla. Egindako proiektua eguneratu dute jada eskakizun berrietara egokitzeko, eta konpromisoa hartu zuten proiektura giza baliabide gehiago bideratzeko. «Udal gobernuak egindako presioari esker, lan taldea indartu dute egoera desblokeatzeko eta eskatutako txosten berri eta gehigarrien izapidetza arintzeko, proiektua behin betikoz onartua izan dadin, ahalik eta eperik laburrenean. Proiektua onartu ondoren sinatuko da udalaren eta Adif-en arteko hitzarmena eta obren esleipena abiatuko dute; Adif-en aurrei-



Udal gobernuak eta Adif-eko arduradunak pasa den asteko bileran. ATARIA

kuspenen arabera, udarako proiektuak onartuta beharko luke, 2023an obren lizitazioa egin eta lanak esleitzeko», esan du alkateak.

Proiektuari esker herriguneko geltokiko irisgarritasuna hobetuko dute eta geltokia modernizatuko dute. Igogailuak jarriko dituzte eta pasabide berria eraikiko dute, horrela Montesque auzorako sarbidea ere hobetuz.

Adif-ek bere gain hartuko du obren kostua, pasabide berria eraikitzeko lanen %50 izan ezik, hori udalak ordainduko du. Guz-tira 3 milioi euroko inbertsioa egitea aurreikusten dela esan du Tolosako Udalak.

Datorren astean hasiko dira Ibarako festak antolatzen

IBARRA // Aurtengo San Bartolome jaien antolaketari ekin asmoz, martxoaren 22rako bilera deialdia luzatu du festa batzordeak; 19:00etan izango da udaletxeko batzar aretoa. Txupina-zoa, kuadrillen bazkaria eta perraren erretzea izango dituzte hizpide. Jaiak abuztuaren 23tik 27ra luzatuko dira eta 95.000 euroko aurrekontua izango dute.

Horma irudi berria inauguratuko dute igandean

BERROBI // Berrobin Ere Euskaraz taldeak udalarekin elkarlanean sortu duen horma irudia inauguratuko dute igandean, hilak 19, 12:00etan. Iturritza janari dendaren eraikinean dagoen etxebizitzan dago irudia, eta Arkaitz Uranga sortzailea izango da bertan. Bertso-laria eta dantzariak izango dira ere eta ondoren kalejiraingo dira Erroizpe ostatura, mokadutxoa egiteko.

San Jose eguneko ekitaldiak izango dituzte igandean

BELAUNTZA // San Jose eguna ospatuko dute igandean, Belauntzan. 12:00etan meza egongo da San Jose ermitan eta ondoren, hamaiketako izango da ostatua. Jarraian bola-jokoak izango dira bolatokian eta 18:00etan dantza latinoak frontoian.

Feminismoan sakontzeko ekitaldiak apirila bitarte

Erredakzioa Gaztelu

Gazteluko Udalak hainbat ekitaldi antolatu ditu *Feminismoan Sakontzen* lelopean, apirilerako. Saioak apirilaren 1ean, 20an eta 29an izango dira. Zehazki hiru tailer-hitzaldi antolatu ditu eta eskolan izango dira. Saio guztiak Emaginek gidatuko ditu eta parte hartzeko udaletxean eman behar da izena.

Lehen ekitaldia pasa den larunbatean izan zen dena den. M8a zela eta herriko emakumeak bildu ziren elkarrekin bazkal-



Herriarrak auzolanean. ATARIA

EGITARAUA

Apirilak 1, larunbata. Indarkeria zahartzaroan tailer-hitzaldia, 17:00etan, udaletxean.

Apirilak 20, osteguna. Mendebaldeko genealogia feministak tailer-hitzaldia, 17:00etan, udaletxean.

Apirilak 29, larunbata. Ahizpatasunean sakontzen tailer-hitzaldia, 17:00etan, herriko eskolan.

tzeko. Egun horretan, gainera, herriarrak herriko iturburuak garbitzen aritu ziren auzolanean.



HEGAZTIAK PROTAGONISTA

Geoparkeko hegaztiei ateratako argazkiekin erakusketa osatu dute Oliver Perezek eta Imanol Manterolak. **Hurbil dituzu, behatu baino ez duzu** erakusketa Aiztondoko Plazida Otaño liburutegiko erakusketa gelan ikusi daiteke martxoaren 24ra arte. Astelehenetik ostiralera 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara bisitatu daiteke. J.MIRANDA

Udalak kiroldegiko gatazkan zeresana duela uste du ELAk

Tolosako kirol instalazioetako langileek grebari ekingo diote gaur, eta 11 egunez eutsiko diote lanuzteari; lan baldintzak hobetuko dituen hitzarmena eskatzen dute

Erredakzioa Tolosa

Soldataren hobekuntza eta eguneratzea eta lan baldintzen erregularizazioa biltzen dituen hitzarmena eskatzen dute Tolosako kiroldegiko langileek. 2019 urtetik ez dutela euren lan baldintzetan hobekuntzarik izan salatu dute, eta euren egoera azaltzeko udalarekin eta enpresarekin bildu arren, ez dute « inolako aurrerapausorik » izan. Hori izan da gaurtik grebara jotzearen arrazoiak. Usabal kiroldegian, Berazubiko udal kirol instalazioan eta Beotibar eta Uzturpe pilotalekuetan lan egiten duten 35 langile inguru dira, eta 11 eguneko lanuztea egingo dutela iragarri dute.

ELA sindikatutik adierazi dutenez, enpresak hainbat proposamen jarri zituen mahai gainean herenegun egin zuten bileran, eta ondoren, langileekin eztabaidatu zituzten. « Langileentzat erosahaltenaren berreskuratzea eta zerbitzuetan hainbat hobekuntza txertatzea gutxieneko eskakizuna da, eta proposamenetan hori bermatuta ikusi ez dutenez, greba deialdiari eustea erabaki dute ».

Erabakiaren berri enpresari ematearekin batera, kontraposamena ere luzatu diote, « langileentzat beharrezkoak diren



Tolosako kiroldegiko atarian elkarretaratzea egin zuten atzo, langileek. J.A.

puntuak barnebilduz». Sindikatuak esan du oraingoz ez dutela ez erantzunik ez eta beste bilera baterako deialdirik jaso.

ELAk adierazi du, halaber, Tolosako Udalak ere zeresana duela gatazkan. « Astelehenean bildu ginen udal arduradunekin, eta hainbat aukera jarri zituzten mahai gainean. Guk esan diegu aukera horiek beraiek planteatu behar dituztela, izan ere, udalak gatazkan esku hartu behar duela ulertzen badu, esku hartu beharko du ». ELAk argi du, azpikontatutako zerbitzua denez, ber-

tan pasatzen denaren inguruan erantzule zuzena dela udala.

Bestalde, grebari gaur hasiera eman aurretik, atzo kiroldegi atarian elkarretaratzea egin zuten langileek, eta datozen eguntan ere mobilizazioekin jarraituko dutela aurreratu dute sindikatuak. « Gure asmoa gatazka gizarteratzea da, izan ere kiroldegia ixten den unetik erabiltzaile ugari geratuko dira zerbitzurik gabe, eta beraiekin elkarbanatu nahi dugu zein den gure egoera, eta nolatan iritsi garen egoera horretara ».

Larunbateko manifestazioan parte hartzeko deia

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduko kideak baraualdia egiten ari dira, tartean, eskualdekoak

Erredakzioa

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduko 30 kidek bost eguneko baraualdia hasi zuten astelehenean, 1.080 euroko gutxieneko pentsioa eskatzeko. Bilbon ari dira egiten baraualdia, eta larunbatera bitarte iraungo du. Tartean, hainbat ekintza burutuko dituzte, eta ekitaldi nagusia larunbat eguerdian egingo duten manifestazioa izango da. Bilboko erdialdeko kaleak gurutzatuko dituzte.

Baraualdirako berrehun pertsona inguru zeuden parte har-

tzeko prest, baina kopurua murriztu behar izan dute, leku arazoengatik. Tolosaldeko pentsiodunen mugimenduko hainbat kide ere ari dira parte hartzen.

Bada, Bilbon larunbatean 12:00etan hasiko den manifestazioan Tolosaldeko pentsiodunek parte hartu ahal izateko, autobusak antolatu ditu Tolosaldeko Pentsiodunen Mugimendukoak.

Bestalde, eskualdeko pentsiodunek gogoratu dute astelehenean, 12:00etan, elkarretaratzea egingo dutela Tolosako udaletxe aurrean.



PASABANEN LANUZTEAK

Tolosako Pasaban enpresako langileek bigarren ordubeteko lanuztea egin zuten atzo. ELA sindikatuak esan duenez, langile guztiek egin zuten bat protestarekin. KPlaren inguruan enpresarekin duten desadostasuna agertzeko hurrengo asteartean, hilaren 21ean, eta hilaren 27an ere lanuzteak egingo dituztela iragarri dute. ATARIA

Hilberriak eta urteurrenak

atarian jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 130 € • Harpidedunentzat 65€
HANDIA (124mm X 63,5mm): 180 € • Harpidedunentzat 90€
ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 80 € • Harpidedunentzat 40€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:00k arte hartzen ditugu

Ukrainako iluntasuna irudikatuz, argazki erakusketa

Bihar zabalduko dute 'Bikaren itzulera: Ivankivera bidaia, errusiar okupazioaren ondoren' erakusketa, Aranburu jauregian

Irati Saizar Artola

Ura Iturralde argazkilari tolosarrak Ukrainara bidaiatu zuen pasa den irailean, argazki kamera hartuta, 20 egunetarako. Han, Bika Adamovych ukrainarrarekin elkartu zen, eta bere bizitza ardatz hartuta, argazki erakusketa osatu du tolosarrak. *Bikaren itzulera: Ivankivera bidaia, errusiar okupazioaren ondoren* erakusketa bihartik aurrera izango da ikusgai, Tolosako Aranburu jauregian, apirilaren 22a bitarte. Bihar, 19:00etan egingo dute inaugurazioa.

Iturraldek eta Adamovychek duela sei urte ezagutu zuten elkar. Zortzi urte zituenetik etorri izan da ukrainarra Tolosara, Chernobil elkartearen bidez, harrera familia batetara. Adamovychen ahizpa tolosarra, Nahia, Iturralderen kuadrillakoa da, eta hortik izan zuten elkar ezagutze-ko aukera, Iturraldek kontatu duenez.

Errusiak iazko otsailaren 24an hasi zuen Ukrainaren kontrako eraso eta handik zazpi hilabete-tara bisitatu zuen herrialdea Iturraldek: «Bikaren hemengo familia sufritzen ikusten nuen, eta aukera nuenez, hara joatea erabaki nuen».

Krakoviatik Leopold hirira heldu zen lehenik, eta Kieven elkartu zen Adamovychekin ondoren. Handik, bere familia bisitatzera joan ziren biak Ivankivera. Adamovychek kontatu du gerra hasiz geroztik ez zela jaio-terri itzuli, eta Iturralderekin egin zuela bidaia lehenengoz: «Suntsituta zegoen». Behin bere familiarekin elkartuta, «zeukaten guztia» eman zietela kontatu du Iturraldek, esker onez. Ivankiv inguruan ere ibili ziren, argazkiak ateratzen.

ILUNTASUNEAN

Ukrainan jasotakoa Tolosara ekarri du Iturraldek, eta eguntan Adamovych ere bertan da,

erakusketa prestatzen. Aranburu jauregian, beraz, historia bat kontatuko dute: Bika eta bere bi familien historia, hain zuzen.

Erakusketako beste protagonista «argirik eza» da, Iturraldek azaldu duenez. «Oraintxe bertan Ukrainan dagoen egoera irudikatu nahi izan dugu hemen, argirik gabe». Argazkiak ikusteko sarreran jarri dituzten linternak erabili beharko dira.

Hiru gune, hiru gela prestatu dituzte, zentzu batekin. Lehenengoan, Adamovych ikusi ahal da Euskal Herrian, haurra zela, bere hemengo familiarekin, eta argia izango duen gune bakarra izango da. «Hortik aurrera, Ukrainan sartuko gara, iluntasunean», kontatu du. Bate-tik, Adamovychen familia biologikoa ezagutzeko aukera izango da, eta bestetik, Ivankiv eskualdea, «suntsituta, gerrako errealtatea, jendea etxerik gabe...». Den-dera 50 argazki inguru jarri dituzte.



Ura Iturralde eta Bika Adamovych, Aranburu jauregian jarri duten erakusketan, mugikorrek linternarekin. I.S.A.



«Zorionekoa naiz bi familia izateagatik, bat han eta bestea hemen»

BIKA ADAMOVYCH UKRAINARRA

I.S.A.

Pasa den astean iritsi zen Ukrainatik Tolosara Bika Adamovych (Kiev, 1997), bi egun bidaiari egin ondoren. Urtebete daramate gerran bere herrialdean, eta ordu-tik, lehen aldiz etorri da Tolosara.

Zelotura duzu Tolosarekin?

Zortzi urte nituenean etorri nintzen lehen aldiz Tolosara. Chernobil elkartearen bidez, ez dakit patua edo zortea izan zen, baina Patxi eta Felix harreraren hartu ninduten.

Geroztik, urtero etorri izan zara?

Udaro etortzen nintzen, bi hilabeterako edo. Neguan etortzeko aukera ere eman zidaten, eta eto-

rri nintzen zenbaitetan. Programa horien bidez, 18 urte bete arte hartzen duzu parte, baina nik neure kontura etortzen jarraitu dut. Izan ere, familia bat daukat hemen. Zorionekoa naiz bi familia izateagatik, bat han eta bestea hemen.

Loturarik ez duzu galdu beraz.

Beti gaude kontaktuan, mezu bidez. Gurasoak, bi anaia eta ahizpa bat ditut hemen, eta egia esan gerra hasi zenean asko lagundu zidaten; ni babestearren handik ateratzeko esaten zidaten, baina han geratzea erabaki nuen.

Zer moduz pasatu duzu azken urte hau?

Zoritxarrez ohitu egin gara. Kieven bizi naiz bikotekidearekin, eta han lasaia dago kontua. Baina handik ateratzen bazara, egoera okerragoa dela ikusten duzu. Gerra hasi zenean asko sufritu genuen. Nire familia Ivankiven bizi da, eta pasa den otsailean, gerra hasi eta astebetara, estaldurarik gabe geratu ziren. Hilabete baino gehiago pasatu nuen haietaz ezer jakin gabe, ez nekien bizirik ala hilda zeuden. Apirila hasieran, zenbaki ezezagun batek deitu zidan, nire aita-ordea zen: 'Bika, bizirik gaude' esan ostean, moztu egin zen. Negar egin nuen.

Tolosan jarritako erakusketa baliatuko duzue zure bizitzaren zati bat erakusteko.

Biharko inaugurazioan bertan izango naiz, eta azalpenak emango ditut argazkien inguruan. Ondoren, lunch bat prestatuko dut, Ukrainako jakiekin.



zozketak

Atarikideentzat **sarrera bikoitza** dugu

Bidean jarraituz
dokumentala

Martxoak 21 asteartea
19:30ean
Villabonako Gurean



Atarikideentzat **sarrera bikoitza** dugu

Anonyme popular
bertsolaritza saioa

Martxoak 26, igandea
19:30ean
Villabonako Gurean



Zozketan parte hartzeko osteguneko 11:00ak arte **943 65 56 95** edo **Ataria.eus**

2024ko egutegirako argazkiak aukeratzeko lehiaketa abian

Irura Bizik antolatu du eta argazkiak urriaren 31ra arte aurkeztu beharko dira; kultura eta festa izango da argazkietarako gaia

Erredakzioa Irura

Irura Bizi elkarteak, aurreko urteetan egin bezala, 2024ko herriko egutegia osatzeko argazkiak aukeratzeko dituen lehiaketa bidez. Iruran erroldatuta daudenek parte ahal izango dute, bakarka, eta parte hartzaile bakoitzak, gehienez, hiru argazki bidali ahal izango ditu. Argazkiak koloretan edo txuri beltzean bidali daitezke eta Irurako lekuren batean ateratakoak beharko dute izan. Festa eta kultura dira argazkietan aurtengoan islatu beharreko gaiak.

Aurkeztutako argazkiak *irura-bizi@gmail.com* helbidera bidali daitezke, egilearen izena, posta elektronikoa, telefonoa eta azalpentxo batekin eta argazkia non aterea den esplikatu. Irailetik aurrera, USB bidez ere aurkez daitezke. Horretarako, aurrez aipatutako datuak gutun-azal baten barruan aurkeztu beharko dira USB-arekin batera; eta, gutun-azala liburutegian jarriko den kutxan sartu beharko dute parte hartzaileek. Lanak urriaren 31ra arte aurkeztu ahal izango dira, JPG formatuan eta gutxienezko kalitatean.

Kultura zinegotziak, Irura Bizi elkarteak kide batek, kultur mahaiak bi kidek eta gaian aditua den herritar batek osatuko dute epaimahaia eta eurek erabakiko dute zein argazkirekin osatuko den 2024ko egutegia. Hilabete bakoitza ilustratzeko erabilitako hamabi argazkiren egileek 30 euroko bonu bana jasoko dute herriko taberna eta dendetan erabiltzeko.

Epaimahaiak beste lau argazki aukeratzeko ditu, eta herritarrek haien artean aukeratzeko dute egutegiko azala izango den argazkia. Whatsapp bidez egindako bozketa bidez egingo dute aukeraketa eta argazki horren egileak ere jasoko du 30 euroko bonua. Azaleko argazkia aukeratzeko bozketan parte hartzen duten guztien artean beste bonu bat zozkatuko dute Irura Bizi elkarteak kideek.

Irrilekuak antolatu ditu Irrika aisialdi taldeak Ollogoionen

Aste honetan aisialdi taldeko kideek izango dute lehentasuna izen ematerakoan eta martxoaren 22tik 30era gainerako haur eta gazte guztiek izango dute aukera

Jon Miranda Amasa-Villabona

Aiztondoko Irrika aisialdi taldeak Irrilekuak antolatu ditu, ekainaren 24tik uztailaren 22ra lau txandatan banatuta. Lizarraldeko Ollogoien herrian Villabonako Jesusen Bihotza parrokiak duen etxea alokatuko du aisialdi taldeak bertan udaleku itxiak antolatzeko. Bailarako gaztetxoek egunotan egin beharko dituzte izen emateak: Irrikako kide direnek igandera arteko epea izango dute eta gainerakoek martxoaren 22tik 30era bitartekoa.

Irrika aisialdi taldeko Nekane Aizpunen iritzian gazteentzat aukera «polita» da udaleku itxien: «Herriko edo bailarako lagun berriak egiteko aukera izaten dute eta elkarbizitza sustatzeko haien artean egonaldi oso aberasgarria izaten da». Txanda bakoitzeko zuzendari bat, sei begirale eta bi sukaldari egongo dira gaztetxoekin batera. «Udaleku itxietan, txanda bakoitzean gehienez 40 umeentzako tokia egongo da; ez dakigu txanda guztiak beteko diren, baina hori nahi genuke», dio Aizpunek.

Ollogoien herri txikia izanik udaleku itxietarako ekintza ugari prestatuko dituzte Irrika aisialdi taldeko begiraleek: «Udan joango gara, beraz, igerilekura bizpahiru irteera egiteko aukera izango dute eta mendi irteerak eta jolas ezberdinak prestatuko ditugu». Aizpunek aurreratu duenez, gauerako ere prestatuko dituzte ekintzak, eta argi kutsadurarik gabe, izarrak ikusteko aukera «paregabea» izango dute parte hartzen duten gaztetxoek.

TXANDAK ADINKA BANATUTA

80ko hamarkada hasieran eskuratu zuen Villabonako parrokiak Ollogoien etxea, eta ordutik, pandemia garaira arte, etenik gabe antolatu dira udaleku itxiak bertan. «Bailarako jende asko pasa da bertatik eta gaur egun joateko adinean dauden ume askoren gurasoak egonda daude bertan». 2019an egokitu zuten azkeneko aldiz etxea eta «txu-



Ollogoien antolatutako udaleku itxietako artxiboko irudia. ATARIA

kun» dagoela aipatu du Aizpunek, baina nabarmendu du «luxurik gabekoa» dela. «Horixe da haurrei ere transmititu nahi dieguna: ezer gutxiarekin ondo pasa daitekeela, ez dugula gauza materialen hainbesteko beharrik».

Astebetean gainera, udaleku itxietan parte hartzen duten gaztetxoek, eguneroko elkarbizitza nolakoa den ikusi eta ardura txikiak hartzeko aukera izango dute. «Guretzako esperientzia ahaztezina izan zen udaleku itxietan parte hartu eta Ollogoien egonaldiak egitea eta nahi genuke gaur egungo bailarako gaztetxoek ere esperientzia hori bizi ahal izatea».

Lau txanda antolatu dituzte Irrilekuak 2023rako. Ekainaren 24tik uztailaren 1era 2014, 2013 eta 2012. urteetan jaiotako haurrek hartu ahal izango dute parte; uztailaren 1etik uztailaren 8ra 2013, 2012 eta 2011. urteetan jaiotakoek; uztailaren 8tik uztailaren 15era 2011, 2010 eta 2009. urteetan jaiotakoek; eta uztailaren 15etik uztailaren 22ra 2010, 2009 eta 2008. urteetan jaiotakoek. «Villabonako Santio jaietarako itzuliko gara guztiak», esan du Aizpunek. Irrika aisialdi talde-

tan izena emanda dauden umeek aste honetan izango dute udaleku itxietan apuntatzeko aukera eta Aiztondoko beste ume guztiek, martxoaren 22tik 30era izango dute zabalik izen ematea. Orain aurre-matrikulazioa egin eta behin plaza guztiak esleitu ondoren egin beharko da ordainketa. Astebeteko egonaldiagatik ume bakoitzak 290 euro ordaindu beharko ditu. Irrika aisialdi taldeak zabaldu duen labur.eus/irilekuak2023 estekan topatutako formularioa beteta egin beharko dira izen emateak.

Irrika aisialdi taldeko kideen indarrak, une honetan, udaleku itxia antolatzen jarrita daude. «Uda parterako eskaera gehiago ere jaso ditugu, baina oraingoz ez gara horretan pentsatzen jarri. Udaleku itxi hauek antolatzen zentratuko gara eta ikusiko dugu beranduago zer gehiago egin dezakegun», aipatu du Aizpunek.

Bailarako ume guztientzat zabaldu dute gonbita Irrika aisialdi taldeak. «Irrilekuetan parte hartu eta udaraz gozatu». Lelo horrekin luzatu diete deialdia Aiztondoko bailarako ume eta gazte guztiei.



ISASTEGI

~ SAGARDOEGIA ~

**DASTATU
UZTA BERRIA**

**AURTEN OSTIRAL
EGUERDIETAN ERE
ZABALIK!**

TOLOSATIK AUTOBUSA

ALDABA TXIKI AUZOA-TOLOSA (GIPUZKOA) TEL: 943 65 29 64

ISASTEGI.COM



Itziar Saizar, Larraitx Etxeberria, Joseba Intxausti, Edurne Urdanpilleta eta Amaia Errondosoro 'Zugatik Gugatik' ekimeneko partaideak. LEYRE CARRASCO

Haurrak eta mugikorren inguruan hausnartzeko saioak egingo dituzte

Ibarrako guraso talde batek sortutako 'Zugatik Gugatik' ekimenaren barruan bi hausnarketa saio antolatu dituzte, bata LH6ko ikasleentzat, eta besteak gurasoentzat

Leyre Carrasco

Miren Ros Bidelagun projektuko sortzaileak iazko azaroan Uzturpe ikastolan eskaini zuen *Pantailak* izeneko hitzaldian parte hartu zuten Uzturpe Ikastolako zenbait gurasok, eta bertan sortu zuten proiektua. Hamar kidek osatzen dute *Zugatik Gugatik* ekimena, eta horien artean daude Larraitx Etxeberria, Amaia Errondosoro, Edurne Urdanpilleta, Joseba Intxausti eta Itziar Saizar. Gurasoak dira guztiak, eta lau eta 18 urte bitarteko seme-alabak dituzte. «Hitzaldi horretan gure seme-alabak arriskuan zeudela ohartu ginen, eta zerbait egin behar genuen horretarako», esan du Saizarrek.

Gaur egun, pantailekin sortu den errealitatea da gurasoen

kezka nagusia, eta horretarako, seme-alabei mugikorra emateko adina «ahalik eta gehien atzeratzea» dute helburu. Izan ere, askotan haurrei mugikorraren erabilera hori aurreratzeko «betebeharra» sentitzen dute. «Adituek esaten dutenez, haurren burmuina 16 urtetik aurrera dago garatuta, beraz, orduan egoten dira mugikorra bezalako gailu bati erabilera txukuna emateko prest», azaldu du Saizarrek. Hala ere, egoera horrek haurren garapen pertsonalean ere «kalteak» eragin ditzakeela aipatu dute: «Ikasketetan, harremanetan, antzietatean edota irudimen faltan, besteak beste. Bukaezina den adar luze bat dago atzetik».

Intxaustiren arabera, «denon etxeetan sartuta dagoen zerbait da» teknologia: «Gure eguneroko

jardueretan izugarrizko presentzia du, eta uneoro erabiltzen dugu zenbait kontsulta egiteko, adibidez». Horregatik, mugak zehaztu behar direla esan dute: «Sare sozialen erabilera egokia egiteko, ordutegi zehatz bat izateko, otordu edota ikastola orduetan mugikorraren erabilera debekatzea, eta uneoro egiten denaz kontziente izatea». Era berean, gurasoen esku hartzea ere «beharrezkoa» dela aipatu dute. «Beraien eredu izan behar gara, gure seme-alabek garapen pertsonal eta profesional osasuntsu bat izateko. Mugak errespetatuz hazi eta hezi behar ditugu», gaineratu du Intxaustik.

HAUSNARKETA SAIOA

Gailu teknologikoen erabilerak gazteengan zer nolako eragina

duen hausnartzeko bi saio prestatu dituzte hurrengo ostegunean, hilaren 23an. Uzturpe ikastolako LH6ko ikasleei zuzendutako formakuntza saioa izango da lehena. Bertan, mugikorra, Internet, *online* jokoak eta sare sozialen inguruan hausnartuko dute, eta hortik ateratzen diren komentarioak eta ondorioak 17:30ean kultur etxean antolatu duten bigarren saioan landuko dituzte, guraso guztiekin batera. «Gurasoen kontzientzia pizteko balio beharko lukeela pentsatzen dugu, gai honek zenbaterainoko kezka sortzen dien neurtzeko», esan du Intxaustik. Miren Rosek bideratuko ditu bi saioak.

Hasiberriak direla diote, eta pauso txikiak ematen ari badira ere, «ilusioz» ari dira lanean.

«Taldearen berri eman nahiko genuke, ahalik eta babes gehien lortzeko, eta indarra lortuz, aurrera egiteko», adierazi du Saizarrek. Horretarako, eskualdean dauden beste guraso taldeekin –Tolosako Altxa Burua, adibidez– «saretzeko» asmoa dute, etorkizunean elkarlanean aritzeko. «Erronka honek eraldaketa bat izan behar duela pentsatzen dugu. Tsunami baten kontra goazen olatu txiki bat gara. Horretaz kontziente izanik, gure seme-alabei etorkizun ona opa diegu, eta aurrera egingo dugu, maitasunez, eta indarra hartuta», esan du Intxaustik.

Ekimenean parte hartzeko interesa duten gurasoek, *zugatikgugatik@gmail.com* helbidera idatzita eskatu dezakete horren inguruko informazioa.

Judo Klub Tolosakoek urrezko bi domina, Espainiako Kopan

Unai Saralegik eta Unai Regillagak senior mailan irabazi dute, eta Joseba Regillagak eta Joseba Etxarrik juniorretan

Imanol Garcia Landa Tolosa

Nage No Kata modalitateko txapelketetan gero eta izen handiagoa hartzen ari da Judo Klub Tolosa. Oraingoan, Espainiako Kopara joandako bi bikoteak urrezko dominarekin itzuli dira etxera. Unai Saralegi eta Unai Regillaga senior mailan gailendu dira, eta Joseba Regillaga eta Joseba Etxarri junior mailan. «Badiara urte batzuk kata mota hau lantzen ari garena klubean, eta lehenengo aldia izan da bi bikote joan, eta bakoitza bere kategorian urrezko dominarekin itzuli garena. Oso pozik gaude lortutako emaitzarekin», esan du Unai Saralegik.

Alde handiarekin lortu zuten irabaztea, gainera. Senior mailako bikoak 395 puntu lortu zituen, bigarrenak baino 20 puntu gehiago. Junior mailakoak, berriz, 392 puntu, bigarrenak baino 34,5 puntu gehiago. «Bi bikoteekin lan nahiko txukuna atera zitzagun», zehaztu du Saralegik, eta beraien kasuan meritu handiko puntuazioa izan zela gaineratu du, lesio batetik atera berri-tan zegoelako. «Guk bilatzen du-



Etxarri, U. Regillaga, Saralegi eta J. Regillaga. JUDO KLUB TOLOSA

gun helburua 400 puntuko langa da, gero Europa eta Munduko txapelketetan hor inguruan izaten direlako finalerako pasea eta dominen lehia».

Hurrengo helburua hemendik hilabete batera Portugalen egingo den Iberiar Trofeoaren bigarren proba izango da. Europako Txapelketa ere jomugan dute lau judokek, baina hori ekainaren erdialdean izango da. Munduko Txapelketa azaroan izango da, Abu Dhabin, eta bertan parte hartzeko gogoz daude.

GIPUZKOAKO TXAPELKETAK

Infantil eta kadeteen Gipuzkoako Txapelketak jokatu berri dira, borroka modalitatean. Infantiletan, Judo Klub Tolosakoek lau domina lortu zituzten eta laurek lortu dute Euskadiko Txapelketara sailkatzea. Unai Arcelusek urrezko domina lortu zuen, eta Paul Gibelalde, Alex Echart eta Mara Olanok brontzezkoa. Kadeteetan beste lau domina: Ioar Olanok urrezkoa, Ion Mateok zilarrezkoa, eta Inhar Leundak eta Hodei Jauregik brontzezkoa.



Espainiako Txapelketara joan ziren Tolosaldea IKTko sei igerilariak. TOLOSALDEA IKT

Zubeldiarentzat hiru domina Espainiakoan

Erredakzioa

Tolosaldea IKT taldeko Mattin Zubeldia igerilariak zilarrezko domina bat eta brontzezko bi domina lortu ditu infantil mailako Espainiako Txapelketan. 200 metro bizkarrean lortu zuen zilarra, eta, kanporaketako 2.06,18 markarekin Euskadiko 16 urteko marka onena egin du eta Eslovenian egingo den Europako Gazte Olinpiar Jaialdirako gutxienekoa lortu zuen. Euskadiko betiko sailkapenean Bidasoan aritutako galiziar bat eta hiru frantziar ditu aurretik; beraz, historiako euskaldunik azkarrena da 200 bizkar igeri egiten. Brontzezko domina bat 100 metro bizkarrean lortu zuen, finalean 59,11 egin. Brontzezko bestea 50 metro bizkarrean lortu zuen, finalean

27,71 eginez eta Euskadiko 16 urteko marka onena berdinduz.

Tolosaldea IKT taldeko beste bost igerilari izan ziren txapelketan. Uhaitz Aranbarrik 50 metro libreetan (25,84), marka pertsonala lortuz, 200 metro libreetan (2.04,97) eta 100 metro libreetan (55,78) parte hartu zuen, azken horretan finaletik gertu geratuz. Enara Urizarrek 200 metro (2.32,06) eta 50 metro (33,13) bizkar probetan marka pertsonala egin zuen. Malen Zubeldiak ere marka pertsonala egin zuen 200 metro estiloetan (2.36,12). 4x100 metro estiloetan, mutilek zazpi garren postua lortu zuten (4.10,11). Mattin Zubeldia (bizkar, 59,15), Ekhi Saizar (bular, 1.14,46), Markel Zaldia (tximeleta, 1.01,62) eta Uhaitz Aranbarrik (krol, 54,70) egin zuten igeri.

Miguel Angel Plazas 'Txiki' omendu dute

Erredakzioa Tolosa

Larunbatean, urte askoan Alpi- no Uzturre Elkarteko entrena- tzaile eta eskiatzaile, eta azken lau urteetan Eskiko Euskal Fed- erazioko fondo-batzordeko ardu- raduna izan den Miguel Angel Plazas Txiki omendu zuten Larra-Belaguan. Elkarteko egungo eskiatzaileek txapela jarri zioten, «zurekin ikasi eta gozatu dugu, eskerrik asko Txiki» esanez. El- karteko kideen esker mezuez gain, estatu osoko iraupen eski- ko eskiatzaileen txalo zaparrada jaso zuen.

Halaber, pasa den asteburuan,

Larra-Belaguan bertan, Iraupen Eskiko Euskadiko eta Nafarroa- ko Txapelketak jokatu zituzten. Alpino Uzturre Elkarteko eskia- tzaileek emaitza bikainak lortu zituzten distantzia librean. Mas- ter 1 mailan, gizonetakoetan, 10 kilometroko lasterketan, Har- kaitz Labeaga txapeldun izan zen eta Igor Aranburu bigarren. 20 urtez azpiko nesken mailan, 10 kilometroko lasterketan, Alaia Juaristi txapeldun izan zen, Naroa Amantegi bigarren eta Laia Arakama hirugarren. 18 urtez azpiko mutilen mailan, 10 kilometroko lasterketan, Hodei Juaristi txapeldun izan zen. 16

urtez azpiko nesken mailan, 5 ki- lometroko lasterketan, Laia Az- pilgain hirugarren sailkatu zen. 14 urtez azpiko nesken mailan, 5 kilometroko lasterketan, June Aranburu txapeldun izan zen eta Inge Arin hirugarren sailkatu zen.

Esprint modalitatean ere Alpi- no Uzturreko eskiatzaileek postu nabarmenak lortu zituzten. Mas- ter 1 mailan, gizonetakoetan, Har- kaitz Labeaga txapeldun eta Igor Aranburu bigarren izan ziren. 20 urtez azpiko nesken mailan, Alaia Juaristi txapeldun eta Laia Arakama bigarren. 18 urtez azpi- ko mutilen mailan, Hodei Jua-



Miguel Angel Plazas 'Txiki'-ri egindako omenaldiaren une bat. ALPINO UZTURRE

risti txapeldun. 16 urtez azpiko nesken mailan, Nerea Cestona bigarren eta Laia Azpilgain hiru-

garren. 14 urtez azpiko nesken mailan, June Aranburu txapel- dun eta Inge Arin hirugarren.



OSTEGUNA, 2023KO MARTXOAK 16
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818, publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082, tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetaledea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarralde: 687 410 118, ibarralde@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132, kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: **943 30 43 46**



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Edoain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



BABESTUTAKO EDUKIA

«Benetan bereizgarriak dira Fraisoron dauzkagun azpiegiturak»

PILI IBAÑEZ DE GARAIO JAKA
FRAISORO ESKOLAKO ZUZENDARIA



Pili Ibañez de Garaio Jaka, ezkerrean eta zutik, Fraisoro Eskolako hainbat irakasle eta langilerekin.

Fraisoro Eskolak eskarmentu handia du pertsonak prestatzen lehen sektorerako, 125 urte egingo baititu aurten. Eskola «familia handi bat, baserri handi bat» bezala dela azaldu du Pili Ibañez de Garaio Jaka zuzendariak.

Zer garrantzi du lehen sektoreak?

Gizarteak garrantzi handiagoa eman behar dio lehen sektoreari, oinarritzkoa baita bere funtzionamendurako. Elikagaiak sortzen ditu lehen sektoreak, eta ezin dugu utzi oinarritzko zerbitzu hori beste herrialdeen menpe. Lehen janari pila bat etortzen zen Murtzia eta Almeriatik, eta orain Marokotik. Garraioarekin arazo bat egonez gero nola egingo genioke aurre? Gaur egun ez dugu ziurrenik gaitasuna behar dugun guztia ekoizteko, baina ahal den guztia izatea komeni zaigu. Euskadin jende asko bizi gara eta ez da hainbeste ekoizten. Lehen sektorea bigarrenaren eta hirugarrenaren oinarria da, beraz oinarri sendo bat behar duzu beste guztia eraikitzeke. Ondorioz, etorkizuna duen prestakuntza eskaintzen dugu.

Lanerako aukera handiak ditu, beraz, lehen sektoreak.

Garbi dago merkatu nitxoak daudela, hau da, kontzientziatuta dauden biztanleak daude, hemengo produktua erosteko

prest daudenak. Horri erantzuteko ekoizleak falta dira. Lan eskaintzak jasotzen ditugu, eta ez dira betetzen.

Zer eskaintza du Fraisoro Eskolak?

Hurrengo ikasturteari begira bi ziklo berri eskaintzen ditugu, eta bi hauek erkidego osoan lehen aldiz emango dira. Horietako bat oinarritzko mailari dagokio, eta Nekazaritzarako eta Abeltzaintzarako Jardueretako Oinarritzko Profesionala izena du. Aukera bat da DBH aldapa gora egiten zaienentzat, eta lehen sektorea gustuko dutenentzat. D ere duan izango da, oso modu praktikoan egiteko diseinatuta dago, Lanbide Heziketara bideratuta, eta DBHko titulua baliotzen du. Hori bukatuta, erdi mailan ditugun hiru zikloetara sartzeko aukera du ikasleak.

Beste ziklo berria elikagaien industriarekin dago lotuta, ezta?

Bai, Elikagaiak Eraldatzeko Teknikaria izena du, eta erdi mailako zikloa da. Argi ikusten genuen nekazaritzari zuzenean lotuta zegoen formazioari elikagaien eraldaketaren arloa gehitu behar geniola. Ekoizleak behar dira, eta hasten diren gehienak ekoizpen txiki batekin hasten dira. Hortaz bizi ahal izateko, ikasleak dibertsifikazioa esaten zaionari heldu beharko dio, hein

handi batean produktuak eraldatu egin beharko ditu, eta prestakuntza berri honekin arlo horri heltzeko aukera zabaltzen dugu. Helburua da esnea, haragia eta barazkiak eraldatzea, eta horrekin nekazaritza arloa osatzea. Bestalde, elikagaien eraldaketako sektoreak ere eskaera luzatu digu, arlo honetan formatutako jendea behar dutela esanez, kontserba enpresetan, harategietan eta merkatal zentro handietan, besteak beste. Horrez gain, sukaldaritza eta ostalaritza munduan dabilzantzat ere beste aukera bat da ziklo berri hau.

Horiez gain, ohiko zikloak dituzue.

Bai, eta hor erdi mailako bi ziklo ditugu, eta goi mailako beste bat. Erdi mailakoetan, Lorezaintza eta Loregintza Teknikaria dugu batetik, eta Nekazaritza eta Abeltzaintza Ekoizpeneko Teknikaria bestetik. Goi mailakoan, Basoa eta Natura Ingurunearen kudeaketako Goi Mailako Teknikaria. Lanbide Heziketa dualaren aukera eskaintzen dugu erdi mailako zein goi mailako zikloetan, hau da, enpresa eta ikastetxeko ikasketa prozesuak bateratuz. Eskolaren erdigunea ziklo horiek denak dira, ikasketa arautua deitzen zaiona. Horrez gain, ikastaroen eskaintza zabala izaten dugu, lehen sektorean eten-

gabeko prestakuntza oso garrantzitsua baita.

Aurki ate irekien saioak izango dituzue.

Hori da: lehen bi saioak martxoaren 22an eta 25ean izango ditugu. Jendea gonbidatuta dago Fraisoro Eskolara etortzera. Ongietorri bateratu bat egiten dugu, eta ondoren, etortzen direnen interesen arabera, taldeak egiten ditugu. Gero, ikasiko duten eremuaren arabera taillerak eta zer material erabiltzen diren erakusten diegu, ikusteko zer baliabiderekin ariko diren hemen. Gure eskola baserri handi bat da. Gertatu izan da ikasle bat sartzeko erdi mailako ziklo batean, beste erdi mailako ziklo bat egitea, eta goi mailako zikloa egiten bukatzea. Lehen sektorea benetan gustuko duenak horretan lan egin nahi du.

Zertan nabarmentzen da Fraisoro Eskola?

Dauzkagun azpiegiturak benetan bereizgarriak dira. Ukuilu bat dugu eta bertan 30 behi jecten ari gara. Oilategia dugu, erleak, ardiak... Hiru baratze mota ditugu: ekologikoa, sistema integratua eta hidroponikoa. Ikasleak hiru aukera horiek ikusten ditu, eta gero etorkizunean berak aukeratuko du gustatzen zaiona. Basoa dugu, eta inguruko baserriarren lurretan lanak egiteko aukera. Lorezainek

ESKAITZA

Nekazaritza

Oinarritzko Maila

- Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Jardueretako Oinarritzko Profesionala.

Erdi Maila

- Lorezaintza eta Loregintza Teknikaria.
- Nekazaritza eta Abeltzaintza Ekoizpeneko Teknikaria.

Goi Maila

- Basoa eta Natur Ingurunearen kudeaketarako Goi Maila Teknikaria.

Elikagaien Industria

Erdi Maila

- Elikagaiak Eraldatzeko Teknikaria.

ATE IREKIAK

Martxoak 22. Asteazkena, 16:00.

Martxoak 25. Larunbata, 11:00.

Maiatzak 5. Ostirala, 16:00.

eremu ezberdinetan lorategiak jarrita dituzte. Kontuan izan behar da, gainera, loradendetan lan egiteko aukera ematen duen ezagutza jasotzeko ziklo bakarra dela. Beraz, gure indar nagusia azpiegiturak dira, eta ikasleek ikasitakoa Fraisoron bertan praktikara eramateko aukera dute. Eta, noski, hori dena posible egiten duen irakasle taldea eta langileak ditugu.